

## Azaroaren 17-22 – Irakaskuntza publikoaren aldeko Europako mobilizazio astea

Dugun krisi ekonomiko orokorraren giro honetan badirudi gobernuen eta nazioarteko instituzioen lehentasuna enpresek eta bankuek espekulazioaren ondorioz izandako galerak diru publikoarekin ordaintzea dela. Baina STEE-EILASEk adierazi nahi du gobernuen funtzioa sektore sozial ahulenak krisiaren ondorioetatik babestea izan beharko litzatekeela. Ildo honetatik, **Azaroaren 17tik 22ra Irakaskuntza publikoaren Europako astea** ospatzen ari da. Ekimen hau Malmon egindako Europako V. Foro Sozialean adostu zen, Europako estatu guztietan irakaskuntza pribatizatzeke joerak sortutako egonezaren ondorioz.

STEE-EILASEk Europa mailako ekimen honi bere elkartasuna adierazi nahi dio eta aste honetan aurrera eramango diren ekintzekin bat egiten du:

- Italian, Berlusconiaren gobernuak hezkuntza publikoari egin nahi dion diru-murrizketa itzelaren aurka
- Katalunian, ikastetxe publikoetako gestioaren pribatizazioa eta jerarkizazioa bultzatzen duen hezkuntzako kataluniar legearen aurka
- Ingalaterran, enpresa pribatuei zein elkarte erlijiosoei ikastetxe publikoen salmentaren aurka.
- Frantzian ikastetxe publiko laikoaren alde eta irakasleen 40.000 lanpostu gutxitzearen aurka ...

Merkatuko legeek ez dute giza kohesioa ezta herritarren gehiengoaren ongizatea bermatzen. Ez dugu ekonomia muga gabe hazterik nahi, baizik eta pertsonak hobeto bizitzea. Horregatik STEE-EILASEk oinarritzko zerbitzu publikoak indartzea aldarrikatzen du eta berretsi nahi du hezkuntza soilik ondare publiko eta giza eskubide alienaezin gisa ulertu behar dela, hiritartasuneko beste eskubide batzuk bertzeko bide funtsezkoa izanik. Beraz, Administrazio publikoaren eginkizuna da eskubide hori doan eta era unibertsalean bermatzea, diskriminazio eta eskusiorik gabe, maila guztietan goi mailako hezkuntza publikoa eskainiz. Hezkuntza sistemaren antolatzailea izango den eskola publikoa nahi dugu, honako hau sustatzen duena:

- Pertsonaren garapen osoa, eskola arrakasta eta kualifikazioa.
- Pentsamendu kritikoa eta hiritartasun aktiboa.
- Sexu desberdinetako ikasleen arteko berdintasuna
- Behar bereziak dituzten pertsonen, etorkinen eta errefuxiatuen inklusioa
- Hezkuntza komunitate osoaren eskubideak, partehartzea eta demokrazia
- Hizkuntz normalizazioa

Horretarako beharrezkoa da:

- Hezkuntzan gastu publikoa gehitzea (gutxienez PIBaren %6)
- Hezkuntza sektoreko langileen goi mailako prestakuntza eta lan baldintzen hobetzea
- Behar guztiak beteko dituen planifikazio oso bat hezkuntza komunitate osoarekin adostutakoa

- Zerbitzuak: jantokiak, garraioa, eskolaz kanpoko ekintzak, etab. sistema publikoaren barne egotea
- 0-3 zikloa doakoa eta unibertsala izatea

Guzti honengatik azaroak 22an, hausnarketarako eta eztabaidarako jardunaldiarekin bat eginez, STEE-EILASeko Kontseilu Nazionalak eguerdiko 12:00etan elkarretaratzea egin du, krisi garaian instituzio publikoak zerbitzu publikoak indartu ditzan eskatuz. “Hipokrisiari aurre egin , zerbitzu publikoak indartu “ lemapean.

2008ko azaroaren 22an